

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2022/11/17

Saila	Laburpena	
Obrak	Bizilagun batek eskatu du igogailu bat jartzea Egogain eta Isasi lotzen dituen eskailera mekanikoaren ondoan.	Azterlan bat egingo da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du semaforo bat jartzeko edo zebra-bide bat margotzeko Elgetako bidearen ezker aldean dagoen parkerako sarbidea seguruagoa izateko.	Egingo da.
Zerbitzuak	Herritar batek eskatu du garbitzeko Ipurua 5 zenbakiaren aurrean dagoen arrapala.	Abisua pasatu zaio Mankomunitateari. Eskatzailearekin bildu ziren, eta auzo-bileratik garbiketa sarri egiten da.
Zerbitzuak	Herritar batek eskatu du komun publikoak jartzeko kalean Eibar Kirol Elkartek Eibarren jokatzen duen egunetan, jendeak kalean pixa egiten du-eta.	Komun publikoak jartzea beharrezkoa da, Eibar kirol elkartearen partiduak direla. Hori dela eta, komun horiek jartzeko ardura ekitaldiaren antolatzailearena da, eta Eibar kirol elkartea izan beharko da futbol-zelaiaren ingurunean partida bakoitzerako behar diren komun publiko eramangarriak jarri beharko dituenak.
Zerbitzuak	Batek esan du toki batzuetan barandak pintatzen hasi zirela eta ez dutela lana amaitu.	Ipurua kaleko 5 zenbaki inguruko eta Bolerako baranden pintatze-lanei buruz ari da. Lanak auzo-bilerak egin aurretik hasi ziren, baina eguraldia eta lan-lehentasunen arteko aldaketa bat direla medio lan hori geratu egin zen; hala ere, abenduaren 5ean amaitu zen.
Zerbitzuak	Herritar batek salatu du futbol-zelaiaren ondoan dagoen igogailua beti dagoela zikin eta trabatuta, eta kosta egiten zaiola irekitzea.	Igogailua 365 egunez garbitzen da lehen orduan. Guztiarekin ere, kexa helarazi zaio igogailuaren garbiketaz arduratzen den enpresari, kontuan izan dezaten.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2022/11/17

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Batek jakinarazi du Ipuruako igogailura sartzeko sareta trabatuta eta herdoilduta dagoela.	Abisua pasatu zen eta sareta 2022ko azaroan garbitu zen.
Udaltzaingoa	Salatu du San Kristobalgo arrapala beti dagoela aparkatutako kotxez beteta.	Ez dakigu zer lekuri buruz ari den.
Zerbitzuak	Bizilagun batek kexa adierazi du uso asko daudelako Romualdo Galdós kaleko 14 eta 16 zenbakietan, eta zikinkeria eragiten dutela inguru horretan.	Mankomunitatea da uso-kopurua egonkor mantentzeaz arduratzen dena, eta horretarako hainbat jarduera egiten dituzte urtean pare bat aldiz. Guk al baitariari jakinarazten diogu une jakin batean uso kopuru handia baldin badago tokiren batean; hala ere, jakinarazi behar da habia jabetza batean, adibidez, teilatu batean badago, hura erretiratzea jabeei dagokiela. Udala ez da inolaz ere lursail pribatuetan sartzen.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du konpon daitezela Santa Ines kaleko jardinak inguratzen dituzten egurrak. Dioenez, haietako askok punta zorrotza dute eta arriskutsuak dira oinezkoentzat.	Brigadak rebisatu egin ditu lorategiak inguratzen dituzten egur-zintarriak. Konponketa 2023/04/19an amaitu da.
Obrak	Santa Ines kaleko auzokide batek eskatu du eskolen inguruko irisgarritasuna hobetzeko.	Aztertu egin da eta ez da bideragarri ikusten, dagoen pendiza eta espazioa direla eta.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du belar pila bat dagoelako JA Mogelesko horman.	Lanak egin ziren.
Zerbitzuak	Batek eskatu du Argatxako Jardiñetako arbolak kimatzeko, batez ere, 16 eta 17 zenbakien aurrean daudenak.	Argatxako arbolak bi edo hiru urtetik behin kimatzen dira, egoera osasuntsuan mantentzeko.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2022/11/17

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Salatu du ur asko pilatzen dela Ipuruako komentuaren aurreko horman.	Hustubideak garbitu egin dira leku horretan, eta ez da antzeman ura pilatzen denik.
Obrak	Batek eskatu du arrapala bat egiteko Argatxara igotzeko.	Irigarritasuna hobetzeko proiektu bat enkargatu da arrapalen bidez Romualdo Galdós eta Argatxaren artean, merkatu zaharraren inguruan.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Ipuruako merkatuko erlojua garbitzeko.	Lan-agindu bat egin da, erlojuaren esfera ahalik eta gehien garbitzeko eta argia jartzeko, hala haren ikusgarritasuna hobetze aldera.
Zerbitzuak	Herritar batek eskatu du hustubide batzuk eraikitzeko dorreen arteko plazatxoan, zeren, adierazi duenez, putzu handiak egoten dira.	Putzuen arrazoia zera da: plazaren hustubideen zorretanak kaltzifikatuta daude eta, hortaz, tutuaren sekzioa murriztu egiten da. Zorroten horiek garajeen jabeek aldatu behar dituzte, haien eskumena da-eta.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du komun publiko bat jartzeko Azitain eta Maltzaga arteko bidegorrian.	Maltzagan komun bat jartzea dago aurreikusita. Horretarako, Hitzarmen bat sinatuko da Foru Aldundiarekin eta Elgoibarko Udalarekin.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du urez garbitzeko (mahukekin) partida-egunetan zikinkeria gehien egoten diren guneak, bai aurretik bai ondoren.	Mankomunitateak jakinarazi digu Ipuruako auzo-bilera egin zenetik sarri garbitzen dela, nagusiki, Bolera ingurua, hortxe egoten da-eta zikinkeria gehien (txiza, eta abar). Ur-mahukarekin garbitzen da astelehen edo astearteetan, baldin eta astelehenean Eibar taldearen partidua badago.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2022/11/17

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Juan Antonio Mogel 4 zenbakiko bizilagun batek eskatu du txukuntzeko 1, 3 eta 5 zenbakien aurrean dagoen lorategia.	Hainbat aukera aztertzen ari dira jardín hori hobetzeko.
Zerbitzuak	Eskatu du semaforo bat jartzea jakiteko ea zezen-plazako eskailera mekanikoak martxan dauden.	Ez da planteatu ez delako beharrezkoa ikusten semaforo bat jartzea, zeren eskailerak oso ondo ikusten dira.
Zerbitzuak	Eskatu du Ipuruako azokako eraikinaren petrilak konpontzeko eta fatxada garbitzeko.	Eraikina eraberritzeko proiektu bat dago (Obrak), eta hor baloratu beharko da elementu horiek zaharberritzea. Aurrekontuetan ez da aurreikusten fatxadaren garbiketa.
Obrak	Eskatu du arrapala bat egitea Santa Inesetik kiroldegiraino.	Aztertuko da.
Obrak	Galdetu du ea ba ote dagoen proiekturik Argatzako Jardíñak berroneratzeko.	Ez da aurreikusten epe ertainera.
Obrak	Informazioa eskatu du jakiteko ea ba ote dagoen egitasmorik txakurrentzako espazio bat sortzeko.	Ez dago aurreikusita.
Zerbitzuak	Eskatu du edukiontzi bat jartzeko Santa Ines kalean plastiko eta ontzietarako.	Ontzien edukiontziak berrikusi ondoren, gaur egun inbentarioan badira jada bi puntu Santa Ines kalean; alegia, Santa Ines 7 zenbakian, Eroski parean, eta Santa Ines 20 zenbakian. Hortaz, ingurua hornituta dago.
Hirigintza	Bizilagun batek galdetu du ea jar daitezkeen fatxada aireztatuak Santa Ines kaleko etxebizitzetan, haien babesa dela-eta.	Bileran aipatu zen bezala, Santa Ineseko bizitegi-multzoaren kasuan, haren babesa dela-eta, fatxaden konfigurazioari eutsi behar zaio.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2022/11/17

Saila	Laburpena	
		Horrek ez du aukera ematen fatxada aireztatuak instalatzeko, baina bai eraikinaren egungo itxura erreproduzitzeko aukera ematen duen "SATE" bidezko eraikina energetikoki hobetzeko. Udaleko Ondare Batzordeak baloratu du hori, eta blokeka, hau da, 4 atariko multzoka, batera egiteko baldintza jarri du.
Alcaldía	Galdetu du Ipuruako anexoko garajeen emakidagatik.	Anexoko garajeek titulartasun-arazo juridiko bat dute, eta konpondu egin behar da ezer baino lehen.
Udaltzaingoa	Salatu du kotxeak aparkatuta egoten direla 3, 5 eta 7 zenbakien parean dagoen zerbitzugunean, eta horrek eragotzi egiten duela tamaina handiko ibilgailuak igarotzea.	Ez dakigu zer lekuri buruz diharduen.
Udaltzaingoa	J.A. Mogel 8 zenbakiko bizilagun batek kexa adierazi du aparkatzeko arazoa dela-eta. Dioenez, Ipuruako futbol-zelaia handitzeagatik galdu ziren aparkaleku-plazak ez dira plaza berriekin ordeztu.	Eibarren dagoen arazoaz jakitun gara eta Udalak lanean dihardu erantzun bat emateko.
Udaltzaingoa	Batek eskatu du ibilgailuei isuna jartzeko irizpidea berdina izan dadila partida dagoen egunetan.	Futbol-partiduak dauden egunetan, beste egunetan bezalaxe, salatu egiten dira gaizki dauden ibilgailuak, bereziki, zebra-bideetan edo espaloiairen gainean aparkatzen dutenean, oinezkoen igarobidea eragotziz.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2022/11/17

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	J.A. Mogel 8 zenbakiko bizilagun batek jakinarazi du arratoiak dituela atarian.	Abenduaren 21ean desratizazioaren arduradunari abisua pasatu zitzaion beharrezkoak ziren neurriak hartzeko arazoa konpontze aldera.
Hirigintza	Herritar batek galdetu du nola dagoen Ipurua 5 zenbakiaren osteko lursailerako aurreikusitako garbiketa-egitasmoa.	Ez dugu identifikatzen non eta zer garbiketa-proiekturi egiten dion erreferentzia.
Hirigintza	Bizilagun batek informazioa eskatu du Egazelain eraikiko diren etxebizitzaren altuerari buruz.	Eraikinak beheko solairua, sei solairu eta teilatupe bat izango ditu.